




Marraztu zure **Autonomia Erkidegoaren**
mapa eta lokalizatu horretan ezagutzen
dituzun **bertako ekoizleak**.





Ulermen galderak:

Zenbat ardi daude Gomiztegi baserrian?

.....

Zein da artzain-txakurren eginkizuna?

.....

Zein da mamia egiteko errezeta?

.....

Zergatik ezin dute egin Idiazabal gaztarik Espainia
hegoaldeko erkidegoetan?

.....

Zergatik esaten dugu mamia esnekien taldearen
barnean dagoela piramide nutrizionalean?

.....



Zer esneki aipatu dira bideoan?
Besterik ezagutzen duzu? Zeintzuk?

.....

Zergatik da Idiazabal gazta Jatorri Deitura
duen produktu bat?

.....

.....





Lexiko berria ikasten dugu.

Lotu hitz bakoitza dagokion definizioarekin.

EGOSI

Substantzia likidoa masa solido eta oretsua bilakatzea.

ESNEKIA

Eskualde, erregio, herrialde edo halako bateko mendi multzoa.

OROGRAFIA

Esnetik eratorritako produktua.

MAMITU


Aurkitzen den leku berean jaio edo sortu dena.

JETZI

Elikagai gordin bat jangarri bilakatzea, irakinez edo lurrunaren ondorioz.

AUTOKTONOA


Esnea ateratzea errapea estutuz.





Egia ala gezurra.

- Bertako produktu guztiek dute Jatorri Deitura Babestu bat.
- Jatorri Deitura duten produktuak beste erkidego batzuetan ekoitzi, prozesatu eta banatutakoak dira.
- Kalitate-zigiluei esker ezagut ditzakegu supermerkatuan.
- Elikagai horien ekoizpenak eta banaketak gure lurraldeko jendearen hazkunde ekonomikoa bultzatzen du.





Bideoan gehien gustatu zaienari buruzko
marrazki bat egin dezakete ikasleek, eta
hura ikusteko moduan jarri ikasgelan.

